# PENTEKOSTE JAIAK
# 2004 BERGARA



BERGARAKO UDALA

# agurra

2004ko Pentekoste Jaiak agintaldi berriko lehenak ditugu. Aldaketak izan dira Udalbatzan, eta denek dakartzate asmo berriak eta gure Bergara maitearen etorkizuneko garapenerako ilusio eta kemena; aisia, kultura, industria eta hainbat eta hainbat alorretan abian jarritako egitasmo handietarako kemena, hain zuzen ere.

2004ko Pentekoste Jaietarako egitaraua aurkezten dizuet. Ilusio handiarekin egina izan da, eta, honen bitartez, berau eratzen parte hartu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiet. Eta, bide batez, jaiak ondo pasatzera animatu nahi zaituztet, egun hauetan gure eguneroko eginbeharrak alde batera lagata.

2004. urtean Melchor Sánchez Toca (Tocako Markesa) jaio zeneko 200. urteurrena eta Telesforo de Monzón jaio zeneko 100.a betetzen dira. Egitarau honetan bertan bien biografiak dauzkazue jakingarri.

Amaitzeko, gurekin egon ezin direnak gogoan ditugula, jaiak bizitzeko aukera dugunok BAKEAN eta ADISKIDETASUNEAN ospa ditzagula.

ALKATEA
Victoriano Gallastegi



Las Pascuas de Pentecostés 2004 son las primeras de una nueva legislatura. El nuevo equipo de Gobierno aporta nuevas ideas y el impetu precisos para el desarrollo futuro de nuestra querida Villa de Bergara, inmersa en grandes proyectos de ocio, cultura, industria, etc...

Con motivo de las fiestas os presento el programa elaborado con toda la ilusión, y os animo a todos, dejando de lado estos dias nuestras obligaciones habituales, a disfrutar de las mismas. Aprovecho la ocasión para agradecer su colaboración a todos los que han intervenido en la preparación del mismo .

Este año celebramos los 200 años del nacimiento de D.Melchor Sánchez Toca (Marques de Toca) y los 100 años del nacimiento de D. Telesforo de Monzón. En este programa se presentan las biografías de ambos.

Para finalizar, un sentido recuerdo para todos aquellos que no pueden estar con nosotros en estas Pascuas, y a todos los que tenemos la suerte de poder vivirlas, mis mejores deseos para disfrutarlas intensamente en PAZ y CONCORDIA.

Azalaren egilea__Mari Paz Alustiza Larrañaga
Eskuprogramaren maketazio eta inprimaketa lana__Gertu Komunikazio Bide, s.l. Oñati
L.G.__SS-0534/04

# PENTEKOSTE JAIAK 2004

## Maiatzaren 14tik 23ra

VII. Abdon Juaristi pintura lehiaketako lanen ERAKUSKETA Errotalde jauregiko erakusketa aretoan (Kultura Etxea).

*Exposición de los trabajos del VII. concurso de pintura Abdón Juaristi, en el palacio Errotalde.*

## Maiatzak 16, igandea

XXXI. HAURREN EUSKAL JAIA, Aranzadi ikastolako, Mariaren Lagundia ikastolako eta San Martin herri eskolako dantza taldeek, Gazte Alai dantza taldeak eta Xamatz dantza taldeak antolatuta.

*XXXI. fiesta vasca infantil, organizada por los grupos de baile de la ikastola Aranzadi, Mariaren Lagundia ikastola y el Colegio público San Martín, y los grupos Gazte Alai y Xamatz.*



Dantzariak 1965an
Bergarako Udal Artxiboko bilduna
(J. Iturbe)

## Maiatzak 21, ostirala

**17:00** EUSKAL KANTU ETA JOLASAK 6 urtetik 12 urtera bitarteko haurrentzat, Fraiskozuri plazan, Jardun elkarteak antolatuta.

*Canciones y juegos vascos para niños de entre 6 y 12 años, en la plaza Fraiskozuri, organizado por Jardun.*

**19:30** VII. Abdon Juaristi pintura lehiaketako SARI BANAKETA EKITALDIA, eta Pentekoste jaietan zezenketetarako erabiliko den KARTELAREN AURKEZPENA, Kultura Etxean.

*Entrega de premios del VII. concurso de pintura Abdón Juaristi, y presentación del cartel anunciante del festival taurino.*

## Maiatzak 25, asteartea

**19:30** "Munduari itzulia milaka egunetan" DIAPORAMA EMANALDIA Eneko Etxebarrietaren eskutik, Kultura Etxean, Jardun elkarteak antolatuta.

*Diaporamas a cargo de Eneko Etxebarrieta, en la Casa de Cultura, organizado por Jardun.*



1974ko dantzariak
Bergarako Udal Artxiboa. Roman Larrañaga fondoa
Egilea: Roman Larrañaga

## Maiatzak 27, osteguna

# Eskola Kiroletako finalak

Futbola

| | |
|---|---|
| Benjaminak | 17:30ean |
| Alebin neskak | 17:30ean |
| Alebin mutilak | 18:15ean |

Tokia__IPINTZA INSTITUTUA

Eskubaloia

| | |
|---|---|
| Benjaminak | 17:15ean |
| Alebin mutilak | 18:15ean |

Tokia__SAN MARTIN IKASTETXEA

Saskibaloia

| | |
|---|---|
| Benjaminak | 17:15ean |
| Alebin mutilak | 18:15ean |
| Alebin neskak | 19:00etan |

Tokia__SAN MARTIN IKASTETXEA

## Maiatzaren 27tik ekainaren 6ra

Simon Arrieta zeramika taldearen ERAKUSKETA Errotalde jauregiko erakusketa aretoan (Kultura Etxea).

*Exposición del grupo de cerámica Simon Arrieta, en la sala de exposiciones de Errotalde.*



# Maiatzak 28, ostirala




*Bitorianatxoren jaitsiera 1993an*
*Bergarako Udal Artxiboa, B.K.E. fondoa*
*(Ariz Ondo aldizkaria)*

**20:00** Jaien hasiera, etxafleroen jaurtiketa eta BITORIANATXOREN JAITSIERAREKIN, San Martin plazan.

*Comienzo de las fiestas con el lanzamiento del chupinazo y la bajada de BITORIANATXO, en la plaza San Martin.*

**Segidan** UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA, hiriguneko kaleetan.

*Pasacalle amenizado por la Banda Municipal de Música.*

**Iluntzean** Matxiategin BARRAKAK irekiko dira, eta Bideberrin, berriz, TXOSNAK.

*Apertura de la Feria de atracciones en Matxiategi, y txosnas en Bideberri.*

**20:30 - 21:30** Jardun-eko TRIKITILARIEN KALEJIRA.

*Pasacalle del grupo de trikitilaris de Jardun.*

**22:30** Aritzeta abesbatzaren 25.urteurreneko KONTZERTUA Udal pilotalekuan.

**Parte hartzaileak** Esoziko abesbatza (Soraluze), Sostoa abesbatza (Eibar), Bergarako Orfeoia, Bergarako Orkestra Sinfonikoa, Gabero abesbatza, Alai taldea eta Aritzeta.

*Concierto del 25 aniversario de la coral Aritzeta, en el Frontón Municipal.*



**24:00** KONTZERTUA Bideberrin, *Valhalla, Red Wine, Legen Beltza* eta *Dolce Vita* taldeekin.

*Concierto en Bideberri con los grupos Valhalla, Red Wine, Legen Beltza y Dolce Vita.*

# Egitaraua

## 1. ZATIA

ALAI taldea
Festara__(R. Sarriegi)
Alma Llanera__(P. F. Gutierrez)
Chanton Piperriren azken ereserkia

Zuzendaria__Xabier Olabarria

ARITZETA abesbatza
Errekatxo kantari__(M. Glez. Bastida)
Ama Begira zazu__(V. Zubizarreta)

Zuzendaria__Alfredo Glez. Chirlaque

Te quiero__(L. Cangiano)
All things bright are beautifull__(J. Rutter)

Pianoan__Ana Isabel Henao
Zuzendaria__Izaskun Labaien

Shenandoah__(J. Erb)
Maria Maialen__(J. Busto)

Zuzendaria__Imanol Urzelai

## 2. ZATIA abesbatza guztiek batera

Igor printzearen dantzak__(Borodin)
Euskal Herria Kantuz__(A. Glez. Chirlaque)
Aritzeta__(A. Glez. Chirlaque)

Zuzendaria__Alfredo Glez. Chirlaque

# Maiatzak 29, larunbata




**09:00** XXIV.HAUR ETA GAZTEEN PLASTIKA SARIKETA, Beart elkarteak antolatuta, bere egoitzan (Bolu kalea, 49).

*XXIV. Concurso de plástica para niños y jóvenes, organizado por Beart., en su sede (Bolu kalea, 49)*

**10:00** DIANA.

- Bolutik, Kobok Bergarako Gaiteroak.
- Labegaraietatik Udal Txistulari Banda
- Oxirondotik Iosu eta Iokin trikitilariak.

*Diana. Los gaiteros Kobok partirán desde Bolu, la Banda Municipal de Txistularis desde Altos Hornos. y los trikitilaris Iosu y Iokin desde Oxirondo.*

**Ondoren** herriko plazan elkartuko dira guztiak, eta Mizpirualdera ere egingo dute bisita.

*Después de juntarse todos en la plaza San Martin, visitarán a los residentes de Mizpirualde.*

**11:30** Herriko elkarteen arteko BAKAILAO LEHIAKETA, Lacor-ek lagunduta. San Martin plazan egingo da. Lehiakideek lanean dihardute bitartean, trikitilariek plaza alaituko dute.

*Concurso gastronómico de bacalao al pil-pil entre diferentes sociedades, en la plaza San Martín, amenizado por trikitilaris y con la ayuda de Lacor*

**13:00** Haur eta gazteen PLASTIKA SARIKETAKO SARI BANAKETA, Beart elkartearen egoitzan (Bolu kalea, 49).

*Entrega de premios del concurso de plástica organizado para niños y jóvenes, en la sede de Beart.*

**17:00** PILOTA PARTIDA INTERESGARRIAK, Udal pilotalekuan.

*Interesantes partidos de pelota.*

**17:45** Haurrentzako BONBA JAPONIARRAK San Martin plazan.

*Bombas japonesas para niños en la plaza San Martín.*



Tarantella Orkestra

**18:30** Bergarako eta Hondarribiako ERRALDOIEN, KILIKIEN ETA BURUHANDIEN KONPARTSAREN KALEJIRA, Bergarako Udal Txistulari Bandak eta Kobok Bergarako gaiteroek lagunduta. Ibilbidea: San Martin plaza, Bidekurutzeta kalea, Ramon Maria Lili kalea, Ibargarai hiribidea, Fraiskozuri plaza, Irizar pasealekua, Barrenkalea eta San Martin plaza.

*Pasacalle de las comparsas de gigantes, kilikis y cabezudos de Bergara y Hondarribia acompañados por la Banda Municipal de Txistularis de Bergara y los gaiteros de Kobok. Recorrido: Plaza San Martín, Bidekurutzeta, Ramon Maria Lili, Ibargarai, plaza Fraiskozuri, paseo Irizar, Barrenkale y plaza San Martín..*

**19:30** ERREKORTADOREEN EUSKADIKO V. TXAPELKETA, zezen plazan. Ekitaldia Elgoibarko dultzaineroek girotuko dute.

*V. Concurso de recortadores de Euskadi, en la plaza de toros. El espectáculo será amenizado por los dulzaineros de Elgoibar.*

**20:00** ELEKTROTUNA TALDEA, herriko kaleetan zehar.

*Pasacalle por las calles de la villa, con el grupo de música Elektrotuna.*

**22:30** KONTZERTUA Bideberrin, *Non servium*, *Ostiada Oi!*, *Ketchoop* eta *Trapatoni* taldeekin.

*Concierto en Bideberri, con los grupos Non Servium, Ostiada Oi!, Ketchoop y Trapatoni.*

**23:30** DANTZALDIA San Martin plazan, Tarantella Orkestrarekin.

*Baile en la plaza San Martín, a cargo de la orquesta Tarantella.*

# Maiatzak 30, igandea



1978ko sokamuturra
Bergarako Udal Artxiboa.
Juan Idigoras fondoa
Egilea: Juan Idigorasa



Sokamuturra 1992an
Bergarako Udal Artxiboa. B.K.E. fondoa
(Ariz Ondo aldizkaria)



Sokamuturra 1971an
Bergarako Udal Artxiboa.
Roman Larrañaga fondoa
Egilea: Roman Larrañaga

**08:00** SOKAMUTURRA San Martin plazan, Elgoibarko dultzaineroek animatuta.

*Sokamuturra en la plaza San Martin. Los dulzaineros de Elgoibar amenizarán el espectáculo.*

**Ondoren,** Elgoibarko dultzaineroen KALEJIRA, San Martin plazatik zezen plazara.

*Pasacalle de los dulzaineros de Elgoibar, de la plaza San Martin a la plaza de toros.*

**09:00** Lehen ENTZIERROA. Ibilbidea: Gaspar jatetxeko garajetik irten, Barrenkalea, Bidekurutzeta, San Martin plaza, Ramon Maria Lili kalea eta zezen plaza. Segidan ENBOLATUAK.

*Primer encierro. Recorrido: Salida por el garaje del restaurante Gaspar, Barrenkalea, Bidekurutzeta, plaza San Martin, Ramon Maria Lili y plaza de toros. Seguidamente embolados.*

**09:15** ALBORADA, Udal Txistulari Bandarekin.

*Alborada, con la Banda Municipal de Txistularis.*

**10:00** "LXIX. Pentekoste Saria" TXIRRINDULARI LASTERKETA, 23 urtez azpikoentzat eta elite mailakoentzat, Lokatza Ziklismo Eskolak antolatuta. Lehendakari txapelketarako puntuagarria. Irteera San Lorentzo auzotik.

*Carrera ciclista "LXIX. Gran Premio de Pentekostés" para menores de 23 años y para categoría de élite, organizada por Lokatza Ziklismo Eskola. Salida desde el barrio de San Lorenzo.*



**11:00** MEZA NAGUSIA San Pedro parrokian. Udal Musika Bandak eta Udal Txistulari Bandak korporazioari lagunduko diote mezataraino.

*Misa solemne en la parroquia de San Pedro. La Banda Municipal de Música y la Banda Municipal de Txistularis acompañarán a la corporación municipal.*

**11:30** XXVII.EUSKADIKO DANTZA TXAPELKETAren kanporaketak, San Martin plazan, hamabost urtez azpiko bikote gazteentzako. Lehenengo 12 bikoteak sailkatuko dira. Antolatzailea: Abarka dantza elkartea.

*Eliminatorias del campeonato de baile al suelto, en la plaza San Martin, para menores de 15 años. Se clasificarán las 12 primeras parejas. Organizado por Abarka dantza elkartea.*



1991ko dantza txapelketa
Bergarako Udal Artxiboa. B.K.E. fondoa (Ariz Ondo aldizkaria)

**12:30** Udal Musika Bandaren KONTZERTUA Espoloian.

*Concierto de la Banda Municipal de Música en el Espolón.*

*Egitaraua:*

*Añoranza___(A. Gz. Chirlaque)*
*Poeta y aldeano___(Fr. Von Suppe)*
*El Caserío___(J. Guridi)*
*Noah's Ark___(B. Appermont)*
*Bergarako ereserkia___(A. Gz. Chirlaque)*

*Zuzendaria___Alfredo Gz. Chirlaque*



**13:30** Herriko kaleetan zehar Elgoibarko dultzaineroen KALEJIRA.

*Pasacalle a cargo de los dulzaineros de Elgoibar.*

**17:00** PILOTA PARTIDA INTERESGARRIAK, Udal pilotalekuan.

*Interesantes partidos de pelota en el frontón municipal.*

**17:15** ZEZEN PLAZARAINO KALEJIRA, San Martin plazatik irtenda, Zumarragako bandak eta Elgoibarko dultzaineroek lagunduta.

*Pasacalle hasta la plaza de toros, partiendo desde la plaza San Martin, con la Banda de Zumarraga y los dulzaineros de Elgoibar.*

**17:30** XXVII.EUSKADIKO DANTZA TXAPELKETA San Martin plazan (hamabost urtez azpikoentzako). Udal Txistulari Bandak eta trikitilariek lagunduko dute.

*XXVII campeonato de Euskadi de baile al suelto para parejas menores de 15 años, acompañado por la Banda Municipal de Txistularis y trikitilaris.*

**18:00** ZEZEN FESTA, Salamancako Lopez Chavesen ganaduekin, Betizu zezen zaleen elkarteak antolatuta. Nobilleroak: Jabier Anton eta Jose Jabier Exposito nafarrak, Daniel Cuevas zaragozarra, Iban Abasolo orduñarra eta sobresaliente moduan Ander Alvarez, bergararra. Burtzikaria: Igor Etxaniz, "Kinttela", azpeitiarra. Zumarragako Musika Bandak eta Elgoibarko dultzaineroek alaituko dute ekitaldia.

*Fiesta taurina, con ganado de la ganadería López Chaves de Salamanca, organizada por la asociación Betizu. Novilleros: los navarros Jabier Antón y José Jabier Expósito, el zaragozano Daniel Cuevas, Iban Abasolo, de Orduña, y como sobresaliente el bergarés Ander Alvarez. Rejoneador: Igor Etxaniz, "Kintella", de Azpeitia.La Banda de Música de Zumarraga y los dulzaineros de Elgoibar amenizarán el festejo.*

**23:00** DANTZALDIA Joselu Anaiak taldearekin San Martin plazan.

*Romería a cargo del grupo Joselu Anaiak en la plaza San Martin.*

# Maiatzak 31, astelehena



Mariachi Garibaldi Taldea

**09:00** Bigarren ENTZIERROA. Ibilbidea: Gaspar jatetxeko garajetik irten, Barrenkalea, San Martin plaza, Bidekurutzeta, Ramon Maria Lili kalea eta Zezen plaza.

*Segundo encierro. Recorrido: Comienzo desde el garaje del restaurante Gaspar, Barrenkalea, plaza San Martín, Bidekurutzeta, Ramon Maria Lili y plaza de toros.*

**Segidan** BIGANTXAK zezen-plazan, *Los Incansables* txarangakoek alaituta.

*Embolados en la plaza de toros, amenizados por la charanga Los Incansables.*

**10:30** PLATER TIRAKETA, Ollagorra elkarteak antolatuta, Gorlako Irubide zelaian.

*Tiro al plato organizado por el grupo Ollagorra, en la campa Irubide de Gorla.*

**11:30** Mariachi Garibaldi taldearen KALEJIRA herriko kaleetan.

*Pasacalle del grupo Mariachi Garibaldi.*

**11:30-13:30** Ipintza II-ko patioan HAURRENTZAKO JOLAS PARKEA, gaztelu puzgarriekin eta beste hainbat jokorekin.

*Parque de juegos infantiles en el patio del instituto Ipintza II.*

**12:00** BERMUTH KONTZERTUA Espoloian Mariachi Garibaldi taldearekin.

*Concierto bermuth en el Espolón con el grupo Mariachi Garibaldi.*

**17:00-20:00** HAURRENTZAKO JOLAS PARKEA Ipintza II-ko patioan.

*Parque de juegos infantiles en el patio del instituto Ipintza II.*







**18:00** HAURRENTZAKO JOLASAK zezen plazan, Manzarbeitia ganadutegiko zezentxoekin eta poniekin. Los Incansables txarangakoak nekaezin arituko dira, musika joz.

*Juegos para niños en la plaza de toros, con las vaquillas y ponis de la ganadería Manzarbeitia. El evento será amenizado por la charanga Los Incansables.*

**19:00** «Bergara Hiria» pilota txapelketako finalak.

*Final del torneo de pelota «Bergara Hiria».*

**22:30** KONTZERTUA Bideberrin, *Pin Pan Pun band*, *Arima Beltza*, *N.C.M.* eta *Supercools* taldeekin.

*Concierto en Bideberri con los grupos Pin Pan Pun band, Arima Beltza, N.C.M. y Supercools.*

**23:00** Nueva Etapa orkestarekin DANTZALDIA Espoloian.

*Baile en el Espolón con la orquesta Nueva Etapa.*






# Ekainak 1, asteartea




Iñaki eta Inazio Perurena harri-jasotzaileak

**09:00** Hirugarren ENTZIERROA. Ibilbidea: Gaspar jatetxeko garajetik irten, Barrenkalea, San Martin plaza, Bidekurutzeta, Ramon Maria Lili kalea eta zezen plaza. Segidan ENBOLATUAK. Los Incansables txaranga arituko da zezen-plaza girotzen.

*Tercer encierro. Recorrido: Comienzo desde el garaje del restaurante Gaspar, Barrenkalea, plaza San Martin, Bidekurutzeta, Ramon Maria Lili y plaza de toros.*

**11:00-20:00** Pentekoste jaietako kartel lehiaketara aurkeztutako KARTELEN ERAKUSKETA, Udaletxeko arkupeetan.

*Exposición de los carteles presentados al concurso de fiestas de Pentecostés, en el pórtico del Ayuntamiento.*

**11:30** *Xafre eta Zaharra*, eta *Iosu eta Iokin* trikitilariekin KALEJIRA.

*Pasacalle con los trikitilaris Xafre y Zaharra, y Iosu y Iokin.*

**11:30-13:30** HERRI TRENArekin txango turistikoa egiteko aukera, Fraiskozuri plazatik irtenda.

*Recorrido del tren local, con salida desde la plaza Fraiskozuri.*

**12:30** HERRI KIROLEN ERAKUSTALDIA, San Martin plazan. Iñaki eta Inazio Perurena aita-semeak harri-jasotzen eta Fausto, Aratz eta Ugaitz Mugerza aita-semeak aizkoran. Aurkezle lanak Gabixolak egingo ditu.

*Demostración de deporte rural en la plaza San Martin con los levantadores de piedra Inazio e Iñaki Perurena y con los aizkolaris Fausto, Aratz y Ugaitz Mugerza. El acto será presentado por Gabixola.*

**13:00** TRIKIPOTEOA, *Xapre eta Zaharra*, eta *Iosu eta Iokin* trikitilariekin, San Martin plazatik hasita.

*Triki-poteo, con los trikitilaris Xapre y Zaharra, y Iosu y Iokin. Comenzará en la plaza San Martin.*

**14:30** HERRI BAZKARIA San Martin plazan. Antolatzaileak: Jardun elkartea eta Xamatz dantza taldea. (Euria eginez gero Seminarioko patio estalian izango da).

*Comida popular en la plaza San Martin, organizada por Jardun y Xamatz. (En caso de que llueva se celebrará en el patio del Seminario).*

**16:00** Bazkalondoan KOADRILEN ARTEKO JOKUAK, *Iraunkorrak* txarangak alaituta.

*En la sobremesa juegos y actuación de la charanga Iraunkorrak.*

**16:30** PILOTA PARTIDA INTERESGARRIAK Udal Pilotalekuan.

*Interesantes partidos de pelota, en el Frontón Municipal.*

**17:00-20:00** HERRI TRENArekin txango turistikoa egiteko aukera, Fraiskozuri plazatik irtenda.

*Recorrido del tren local con salida desde la plaza Fraiskozuri.*

**18:00** Herriko koadrilentzako ZEZENTXOEKIN JOLASAK, zezen-plazan: Futbola, jauziak...

*Juegos con vaquillas para las cuadrillas, en la plaza de toros: fútbol, saltos...*



*«Los Incansables» txaranga, Felix Iñiguez de Heredia, Luis Mari Gutierrez, Aitor Aginagalde eta Bitorianatxo 1991n Bergarako Udal Artxiboa. B.K.E. fondoa (Ariz Ondo aldizkaria)*

**Ondoren,** KALEJIRA Los Incansables txarangarekin.

*Pasacalle, con la charanga Incansables.*

**20:00-21:00 eta 22:30etik aurrera** DANTZALDIA Egan taldearekin, San Martin plazan.

*Romería con el grupo Egan, en la plaza San Martín.*

**24:00** Bitorianatxoren igoerarekin, PENTEKOSTE JAIEN AMAIERA.

*Subida de Bitorianatxo, y final de las fiestas de Pentecostés.*

## Ekainak 4, ostirala

17:00 EUSKAL KANTU ETA JOLASAK 6 urtetik 12 urtera bitarteko haurrentzat, Espoloian, Jardun elkarteak antolatuta.

*Canciones y juegos vascos para niños de entre 6 y 12 años, en el Espolón, organizado por Jardun.*

22:30 Hika antzerki taldearen «IXA» ANTZEZLANA Bergarako Novedades aretoan, Mikel Laskurainen eskutik.

*Representación de la obra de teatro Ixa, del grupo de teatro Hika, en el salón Novedades, con la actuación de Mikel Laskurain.*

## Ekainak 5, larunbata

11:00 ATLETISMO FROGA KONBINATUAK, Agorrosingo atletismoko pistetan. Frogak: atletismoa, luzera jauzia, erreleboak 60, 100 eta 1.500 metrotan.

*Pruebas atléticas combinadas, en las pistas de atletismo de Agorrosin. Las pruebas constan de: atletismo, salto de longitud y relevos de 60, 100 y 1.500 metros.*

12:00 XIX.Koldo Eleizalde literatura lehiaketako sari banaketa, Zabalotegi aretoan.

*Reparto de premios del XIX. concurso de literatura Koldo Eleizalde.*

16:00 XAKE AZKARREKO TALDEKAKO PARTIDEN ZIRKUITUA: Xakeko adiskidetasun Kluben zirkuitua, Ipintza II institutuan.

*Circuito de partidas rápidas de ajedrez por equipos: circuito del club de la amistad.*

## Ekainak 6, igandea

10:00 TALDEKAKO XAKE TXAPELKETA, XXXIII. Bergara Hiria Saria, Ipintza II institutuan.

*Campeonato de ajedrez por equipos, XXXIII. Trofeo Villa de Bergara en el instituto Ipintza II.*

12:00 Euskal Selekzioa osatuko duten jokalariak hautatzeko XAKE lehiaketa konbinatua, Ipintza II institutuan.

*Combinado ajedrecístico para elegir a los componentes de la Selección Vasca, en Ipintza II.*

17:00 Xake partida azkarren taldekako TXAPELKETA IREKIA, Ipintza II institutuan.

*Torneo Open de ajedrez de partidas rápidas por equipos, en el instituto Ipintza II.*



Neska taldea dantzan 1990. hamarkadan
Bergarako Udal Artxiboa. B.K.E. fondoa
(Ariz Ondo aldizkaria)

## Ekainaren 10etik 20ra

Bergara Hiria XX. argazki lehiaketara aurkeztutako lanen ERAKUSKETA, Errotalde jauregiko erakusketa aretoan (Kultura etxea).

*Exposición de fotos en la sala de exposiciones de Errotalde, con los trabajos presentados al XX. concurso Bergara Hiria.*

## Ekainak 11, ostirala

**17:00** EUSKAL KANTU ETA JOLASAK 6 urtetik 12 urtera bitarteko haurrentzat, Usondo parkean, Jardun elkarteak antolatuta.

*Canciones y juegos vascos para niños de 6 a 12 años, en el parque Usondo, organizado por Jardun.*

## Ekainak 12, larunbata

**BERGARA DANTZARA! Egun osoko erromeria,**
**Abarka dantza elkarteak eta Xamatz dantza taldeak antolatuta.**

*Bergara Dantzara!, romería durante todo el día, organizada por los grupos de baile Abarka y Xamatz.*

**11:00** Dantzazale, dantzari eta musikariei HARRERA eta ondoren KALEJIRA herri osoan zehar bi taldetan banatuta.

*Recibimiento a los dantzaris, músicos y aficionados al baile, y pasacalle por todo el municipio.*

Jendeari eskatzen zaio antzinako baserritarren erara jantzita etortzea. Jantzirik onenekin daudenentzat sariak izango dira.

*Se anima a la gente para que vistan como los baserritarras de antaño. Habrá premios para los mejores trajes.*

**13:30** DANTZA IKUSKIZUNA, San Martin plazan.

*Bailes en la plaza San Martin.*

**14:30** HERRI BAZKARIA Seminarioko patio estalian. Txartelen salmenta: Dixula tabernan eta Kultura Etxean (10 euro).

*Comida popular en el patio del Seminario. Venta de tickets: En el bar Dixula y en la Casa de Cultura.*

**18:00** ERROMERIA Epelde eta Larrañaga trikitilariak eta Konde dultzaineroarekin, eta Zabale eta Berastegi trikitilariak eta Garikoitz dultzaineroarekin.

*Romería con los trikitilaris Epelde y Larrañaga y el dulzainero Konde, y con los trikitilaris Zabale y Berastegi y el dulzainero Garikoitz.*

**20:00** TRIKIPOTEOA eta festaren bukaera.

*Triki-poteo y final de la fiesta.*


URKAN diseinua
ETXEBERRIA
Bitxitegia
Erlojutegia
Antzinako hormako erlojuen
Konponketa eta zaharberritzea
Gure bitxitegi tailerra
Edozein bitxi mota itxuraldatzen dugu
Joyería
Relojería
Reparación y Restauración de
relojes antiguos de pared
Taller propio de joyería
Se transforman todo tipo de joyas
PIERRE BALMAIN PARIS
Bidekurutzeta, 16 - Tel. 943 762 394 - 20570 BERGARA


Era guztietako lanei markoak ipintzen dizkiegu
KEROS
Lanak zeurean 24 orduren barruan
Keros-ek jai zoriontsuak opa dizkizue bergarar guztioi!!!
Tailer propioa Bergara. Espoloia, 4 Tel.: 943 76 11 68


MULTIOPTICAS
LANKIDETZA
GAES
ENTZUMEN ZENTRUAK
AHORA, ADEMÁS DE LA VISTA TE CUIDAMOS EL OÍDO
ORAIN IKUSMENAZ GAIN, ENTZUMENA ERE ZAINTZEN DIZUGU
Otalora Lztua. 18 behea • ARRASATE
Tel.: 943 71 27 93
Bidebarrieta 2 • EIBAR
Tel.: 943 20 61 14
MULTIOPTICAS
Ibargarai 16 • BERGARA
Tel.: 943 76 15 75
J. Carlos Guerra, 1 Tel.: 943 79 29 95 ARRASATE
J.M. Barandiaran Enp. Tel.: 943 88 99 88 ORDIZIA
Bidebarrieta, 2 Tel.: 943 20 05 22 EIBAR
Pl. de la Esmalteria, 7 Tel.: 943 51 78 11 ERRENTERIA
C.C. Mendibil Tel.: 943 63 99 01 IRUN
San Francisco, 23 Tel.: 943 69 84 70 TOLOSA


ILUSIO Kreditua
EUSKADIKO KUTXA
ILUSIO KREDITUAREN ESKAINTZA
%4,96
Horrela izango da, desioak
Euskadiko Kutxak beteko ditu
Fraizkozuri, nº 4
Telefonoak: 943 761340 / 761341
Faxa 943 760685
20570 Bergara
Matxiategi, nº 5
Telefonoak: 943 765741 / 765742
Faxa 943 760802
20570 Bergara
CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA







*Jai biziak bizi.*

*Alaitasuna, aldarte onak, ustekabeak, jostaketa. Jaiak gozatuz bizitzea. Horra zer opa dizugun guk ere. Horra, **kutxak** opa dizuna.*



kutxa
gizarte ekintza

www.begira.com

# Bergara 2004: bi urtemuga handi

## 1904-1981_Telesforo Monzon

## 1804-1880_Melchor Jose Maria Sanchez Toca

# Monzon Ortiz Urruela, Telesforo

## 1904-1981



Idazle, politikari eta buruzagi abertzale hau Bergarako Olaso dorretxean jaio zen 1904ko abenduaren 1ean. Zuzenbide ikasketak egin zituen Madrilen, ez zituen bukatu ordea, eta EAJko kide egin zen 1930ean alderdia berriro elkartzean Alderdi horretako zinegotzi aukeratu zuten II. Errepublikari bide eman zioten 1931ko udal hauteskunde historikoetan.

Euskal Herriko lehen estatutua prestatzeko prozesuan, Bergarako udalak, beste udal batzuek bezala, Eusko Ikaskuntzaren estatutuari egin beharreko zuzenketa erlijiosoak eta hamar urtekoak proposatzea lortu zuen. Zuzenketa horien bidez, estatutuari zegozkion aldaketak egin eta Lizarrako estatutu konfesionala sortu zen.

Gorteetako diputatu aukeratu zuten bi legegintzalditan (1933-1936). Monzonen ibilbide errepublikarra ezagutzeko, aski dugu jendaurreko ekitaldi, hitzaldi eta mitinetara jotzea. GBBko buru eta EAJ-ko Euskadi Buru Batzarreko kide izan zen. Hegoalde osoan ibili zen hitzaldiak ematen. Monzonek bai euskaraz bai gaztelaniaz erabiltzen zuen hizkera gozoak jendetza handia erakartzen zuen.

1936an Agirre lehendakariak Euzko Jaurlaritzako Gobernazio ministro izendatu zuen. Eta ardura hori zuela, "Ertzaintza" izeneko polizia eta bere atal motorduna sortu zituen. Biek ere laguntza izugarria eman zuten bai ordena zaintzeko bai gerrako beharrei erantzuteko.

Erbesteko Eusko Jaurlaritza Frantzian finkatu zen eta han bi zeregin nagusitan jardun zuen Monzonek: presoen trukea lortzeko (Geneva, 1937) eta euskal errefuxiatuak kontzentrazio-esparruetatik ateratzeko (Saint-Cyprien sur Mer, 1939) ahaleginetan. Alemaniak Frantzia okupatu ondoren, Mexikora abiatu zen. Marseillako portutik irten zen *Alsina* itsasontzian, eta hamaika hilabete igaro ziren Mexikora iritsi aurretik. Tarte horretan gorabehera eta

Escritor, político y líder nacionalista vasco nació en Bergara (Torre Olaso) el 1 de diciembre de 1904. Estudió derecho en Madrid (sin acabarlo); se afilió al PNV al reunificarse en 1930 siendo elegido concejal de su villa natal en las históricas elecciones municipales de 1931, que propiciaron la proclamación de la II República.

Durante el primer proceso estatutario vasco obtuvo de su ayuntamiento que éste propusiera, al igual que lo hicieron otros, las enmiendas religiosa y de los diez años al Estatuto de la Sociedad de Estudios Vascos, enmiendas que luego determinarían la trasformación de éste en el Estatuto confesional de Estella.

Fue elegido Diputado en Cortes durante dos legislaturas (1933-1936). Su trayectoria republicana puede seguirse a lo largo de sus actos públicos, conferencias y mítines. Presidente del GBB y miembro del EBB (Euskadi Buru Batzar del PNV), se puede decir que abarcó con su oratoria todo Egoalde. Su palabra cálida, tanto en euskera como en castellano, movía multitudes.

En 1936 el Lehendakari Jose Antonio Agirre le nombra ministro de la Gobernación del Gabinete Vasco. A cargo de Monzón corrió la constitución de la Policía Autónoma «Ertzaina», y su sección motorizada, que prestaron tan grandes servicios, no ya sólo al orden general, sino incluso a las necesidades de la guerra.

El Gobierno Vasco en el exilio se establece en Francia, donde Monzón trabaja para conseguir el canje de prisioneros (Ginebra, 1937) y la salida de los refugiados vascos de los campos de concentración (Saint-Cyprien sur Mer, 1939). Tras la ocupación alemana se dirigió a México, embarcando en Marsella en el

atxiloketa ugari jasan zituzten itsasontziko bidaideek Casablanca eta Dakarren.

1946an Parisen finkatu zen Eusko Jaurlaritzako gainerako kideekin batera, eta gobernuan jarraitu zuen Carro komunista kargua uztera behartu zutenetik 1952an berak ere, EAJren itun-politikarekin bat ez zetorrela eta, dimititu zuen arte. Hala eta guztiz ere, EAJri jarraitu zuen Monzonek, eta Jose Antonio Agirreren gorpua Monzonen Donibane Lohitzuneko *Mende Berri* etxean beilatu zuten 1960ko abuztuan hil zenean.

Bere alderditik eta bere belaunalditik aldendu ondoren, geroz eta gertuago zegoen 50eko hamarkadaren amaieran sortutako belaunaldi berritik, 60ko hamarkadan Iparraldera ihesi joandako ETAkideengandik bereziki. 1969an *Anai Artea* sortu zuten Donibane Lohitzunen euskal erbesteratuen bigarren belaunaldiari babesa emateko. Monzon erakundeko lehendakari izendatu zuten eta P. Larzabal idazkari. Erakundearen izena egunkari guztien lehen orrian azaldu zen 1970ean, Eugenio Behil alemaniar kontsularen bahiketan bitartekari jardun zuelako. Gertakari horren ondorioz, Monzonek susperraldia izan zuen berriro politikagintzan eta ETAren izena mundu osoan egin zen ezaguna.

Urte hartatik aurrera ETAren inguruan sortzen hasi zen mugimenduaren alde egin zuen Monzonek, fronte abertzalearen aldeko bere politikaren ardatz nagusitzat hartuz. 1976an Euskal Herria Veneziako Bienalera eraman zuen batzordeko kidea izan zen, eta bertan, Veneziako alkate Rico jaunarekin bildu ziren.

Francoren diktadura amaitu zenean, Espainiako agintariek Hegoaldera itzultzeko baimena eman zioten 1977ko uztailaren 14an. Aurreko egunean bere alderdikoekin izan zuen bileran diziplina betetzeko agindu zioten, baina "*erabat libre izanik, erakunde baten diziplinaren mende egonda baino gehiago egin dezaket*" erantzun zien. Handik egun batzuetara dimisioa aurkeztu zuen Bergarako herri-batzarrean.

Hilaren 21ean Durangoko pilotalekuan azaldu zen ezustean, Espainiako Gobernuak Ipar Europara estraditatutako ETAko militanteekin batera (hauteskunde-prozesuan eraginik ez izateko estraditatu zituzten). Monzonek izugarrizko entzutea zuen eta bere borroka-kantak —*"Itziarren semea"*, *"Batasuna"*, *"Lepoan hartu"*, *"Bai euskarari"*, etab.— trantsizioa girotu zuten

«Alsina», tardando once meses en hacer la travesía, con numerosos incidentes y detenciones de sus pasajeros en Casablanca y Dakar.

En 1946, con los demás componentes del Gobierno Vasco se instaló en París, permaneciendo en el Gobierno, tras la forzada dimisión del comunista Carro, hasta su propia dimisión por discrepancias relativas a la política de alianzas del PNV, con el resto de sus componentes en 1952. Ello no impidió que Monzón siguiera perteneciendo al PNV y que el cadáver de Jose Antonio Agirre fuera velado en su casa «Mende Berri» de San Juan de Luz en agosto de 1960.

Habiéndose distanciado de sus compañeros políticos y generacionales, Monzón comenzó a verse cada vez más atraído por la nueva generación nacionalista nacida a finales de los 50, especialmente por las gentes de ETA que van acogiéndose al exilio de Iparralde durante los años 60. En 1969 se crea en San Juan de Luz «Anai Artea» con el objetivo de dar acogida humanitaria a esta segunda generación de refugiados vascos. Monzón es nombrado presidente de la misma y el P. Larzábal secretario. El nombre de la nueva institución salta en noviembre de 1970 a todas las páginas de la actualidad al convertirse en mediadora en el secuestro del cónsul alemán Eugenio Behil, acción que sirve de relanzamiento político a Monzón y pasea el nombre de ETA por el mundo.

A partir de estas fechas Monzón apoyará el movimiento político que comenzará a aglutinarse en torno a ETA, haciéndola la pivote fundamental de su política en pro de un Frente Nacional Vasco o Frente Abertzale. En octubre de 1976 formó parte de la Comisión que llevó la presencia vasca a la Bienal de Venecia de ese año, siendo recibido por el Dr. Rico, alcalde de la ciudad.

Al finalizar la dictadura de Franco, Monzón fue autorizado el 14 de julio de 1977 para regresar a Egoalde por las autoridades españolas. La víspera había asistido a una reunión de su partido en la que fue conminado a someterse a la disciplina del mismo, a lo que respondió que creía poder hacer más *«totalmente libre que sometido a la disciplina de una Organización»*, poniendo en los días siguientes su dimisión en manos de la Junta Municipal de Bergara.

Euskal Herrian. Gogorra zen, baina era berean atsegina, borroka armatuaren alde egiten zuen argi eta garbi («gerra ez da amaitu»), itxura dotorekoa zen, baina pixka bat xelebrea ere bai. Ezaugarri horien guztien ondorioz, nazionalismo erradikalaren irudi mitiko bihurtu zen Monzon. Indar erreformistek eta nazionalismo moderatuak hauteskundeak irabazi ondoren hasi zuen Monzonek bere goraldia, 1977ko udan Askatasunaren alde egin zuten ibilaldi jendetsuan.

Urte haietan, Espainiako Barne ministerioak zazpi aldiz eraman zuen auzitara, ustez terrorismoaren apologia egin zuela eta. Ordurako, aldarrikatuta zeukan bere lelorik ezagunena: *"Gaurko gudariak atzoko gudarien ondorengoak dira"*. Oinarrizko baldintza hauek finkatu zituen "gerra" (ETAren borroka armatua) bukatzeko: *"1. Gerra-preso guztiak askatzea, gerra-preso diot, bai, batzuentzat gaizkileak edo terroristak diren gizon-emakume horiek Euskal Herriko heroiak baitira gaur egun, eta halakotzat ditu Euskal Herriak. 2. Forua, eta ez foruak. Burujabetza alegia. Hau ez da berria. Tradizionala bezain berri eta gerora begirakoa da. Forua ez da liburu bat, edo lege bat, legea egiteko ahalmena baizik. 3. Tarteko garaia behar dugu eta, horretarako, Madrilen gobernu zinez demokratikoa ezartzen den unean bertan, Euskal Herrian gobernu autonomoa ezartzeko eskatzen dugu, eta dagozkion legebiltzar, lege, botere judizial, irakaskuntza eta abar izan ditzala. Gobernu horrek Lizarrako estatutua izan lezake oinarritzat, Hego Euskal Herriak hirutan berretsi baitzuen. Dena den, ez naiz azken horretan tematuko"*.

1979ko hauteskunde orokorrak geroz eta gertuago zeudenean, HB koalizioa sortu zen EAE-ANV, ESB, HASI eta LAIA alderdiek bat egin ondoren, eta Monzonek koalizioan parte hartu zuen independente moduan. Esan zuenez, inoiz baino jelkideago sentitzen zen orduan. Hauteskunde-kanpainan amnistiaren aldeko itxialdi batean zegoela, atxilotu eta Langraizen espetxeratu zuten. Han gaixotu egin zen eta ospitalera eraman behar izan zuten. Inmunitate parlamentarioari esker martxoan kartzelatik atera zuten, baina HBko mahai nazionalaren erabakia betez, ez zen gorteetara joan.

Abenduan auziperatu egin zuten Pako Letamendia *"Ortzi"* diputatuarekin batera, terrorismoaren apologia egitea leporatuta. Hurrengo urtean gorteetako aulkia utzi eta Gasteizko Legebiltzarkide aukeratu zuten, baina hara ere ez zen joan. Baionan hil zen 1981eko martxoaren 9an, eta Bergaran lurperatu zuten.

Telesforo *"Euskaltzaleak"* elkarteko kide aktiboa eta ondare izugarria utzi zion euskal literaturari. Juan San Martinek ondokoa idatzi zuen Donostiako *"La Hoja del Lunes"* egunkarian Telesforo hil eta zortzi egunera: *"Telesforo Monzonen heriotza dela eta, egunkariek bere bizitza politikoaren berri zabala eman dute, baina literatur lanak ia aipatu ere ez dituzte egin, nahiz eta Monzonen bizitzako alderdi hori nabarmentzekoa izan eta garrantzi handikoa euskal literaturarentzat"*.

Eta hala zen, lan ugari idatzi baitzuen euskal kultura aberasteko: *"Urrundik"* (Mexiko, 1945) eta *"Gudarien Eginak"* (Lapurdi, 1947) olerki-liburuak; *"Odol Bidea"*, *"Zurgin zaharra"*, *"Menditarrak"* (1958), *"Gure behia hil da"*, *"Hazparneko anderea"*, *"Eneko Bizkai eta Maria Lorka"* (1966), *"Lau kantari eta xori bat"*, *"Hazparneko bozkarioa"*, *"Ur garbia"*, *"Behorraren ostikada"* antzezlanak; edota *"Batasuna"*, *"Lepoan hartu"*, *"Bai euskarari"*, *"Euskalduna naiz"*, *"Itziarren semea"*, *"Aita kartzelan duzu"*, *"Ikastoletako ereserkia"* borroka-kantak.

El 21 de ese mes aparecía sorpresivamente en el frontón de Durango ante el público en compañía de los militantes de ETA extraditados por el Gobierno español al norte de Europa, con la finalidad de que no interfirieran en el proceso electoral en curso. Su popularidad es inmensa y sus canciones de lucha –Itziarren semea, Batasuna, Lepoan hartu, Bai euskarari, etc. – sirven de música de fondo de la transición política en tierra vasca. Su actitud intransigente pero afable, su decidida defensa de la lucha armada («la guerra no ha terminado»), su figura elegante y algo teatral, lo convierten en la figura mítica del nacionalismo radical, que inicia su ascensión con la multitudinaria Marcha de la Libertad celebrada en verano de 1977, tras unas elecciones ganadas por las fuerzas reformistas y el nacionalismo moderado.

Durante estos años el Ministerio del Interior español presentará contra él siete querellas por apología del terrorismo. Mientras, ha acuñado ya su slogan más célebre: *"Los gudaris de hoy son los continuadores de los gudaris de ayer"*. Las condiciones esenciales para que "la guerra" (la lucha armada de ETA) cese, las estipula de esta forma: *"1º La liberación de todos los prisioneros de guerra, digo bien, prisioneros de guerra, porque estos hombres y mujeres que para algunos son bandidos o terroristas, digo bien alto, que son héroes nacionales de Euskal Herria hoy, y por tal los tiene Euskal Herria hoy. 2º El fuero, no digo los fueros. Es decir, la soberanía. Esto no tiene nada de nuevo. Es tan nuevo y futurista como tradicional. El fuero no es un libro, ni una ley, es la potencia de poder hacer la ley. 3º Hay que pasar por una época transitoria y para ello exigimos que desde el momento que se establezca en Madrid un gobierno verdaderamente democrático, exista en Euskadi un gobierno autónomo con un parlamento, unas leyes, con un poder judicial, de enseñanza, etc., que podía basarse –en esto no hago hincapié– en el Estatuto de Estella, porque fue aprobado tres veces por el conjunto de Euskadi Sur"*.

Al aproximarse las elecciones generales de 1979 y constituirse la coalición HB integrada por ANV, ESB, HASI y LAIA forma parte de la misma como personalidad independiente (sintiéndose, según confiesa, más jelkide que nunca). Durante la campaña electoral tras la cual será elegido Diputado por Gipuzkoa–, hallándose en un encierro pro-amnistía fue detenido y llevado a la cárcel de Nanclares de la Oca donde enfermó teniendo que ser hospitalizado. Tras aplicársele la inmunidad parlamentaria y ser excarcelado en marzo, no concurrió a las Cortes, por acuerdo adoptado por la Mesa Nacional de HB.

En diciembre de ese año fue procesado, junto con el Diputado Francisco Letamendia "Ortzi", acusado de apología del terrorismo. Dimitió de su escaño al año siguiente, al resultar elegido miembro del Parlamento de Vitoria, al que tampoco asistió. Falleció en Bayona el 9 de marzo de 1981 siendo enterrado en Bergara.

Telesforo fue miembro activo de «Euskaltzaleak» y como literato euskaldun, deja un legado interesantísimo a nuestra cultura. Juan San Martín, escasamente a ocho días de su muerte, escribía en "La Hoja del Lunes", de San Sebastián: *"Al fallecimiento de Telesforo de Monzón, los diarios han aireado su vida política, con escasa valoración de su actividad literaria, una faceta de su vida nada despreciable y de considerable valor para la literatura del euskera"*.

Efectivamente, la siguiente lista de las obras escritas por él, destinadas a enriquecer la cultura euskaldun, nos confirma cuanto queda dicho. Libros de poemas: *"Urrundik"* (México, 1945), *"Gudarien Eginak"* (Lapurdi, 1947); Obras de teatro: *Odol Bidea, Zurgin Zaharra, Menditarrak* (1958), *Gure behia hil da, Azparneko Anderea, Eneko Bizkai eta Maria Lorka* (1966), *Lau kantari eta xori bat, Hazparneko bozkarioa, Ur garbia, Behorraren ostikada*. Canciones de lucha patriótica: *Batasuna, Lepoan hartu, Bai euskarari, Euskalduna naiz, Itziarren semea, Aita kartzelan duzu, Ikastoletako ereserkia*, etc.



*Telesforo Monzon 1977an*
*Bergarako Udal Artxiboa. Roman Larrañaga fondoa*
*Egilea: Roman Larrañaga*

# Sanchez Toca, Melchor Jose Maria

## 1804-1880

## *«Tocako markesa»*

1804ko urtarrilaren 5ean Bergaran jaioa. Medikua eta zirujaua. Katedraduna Madrilen eta Medikuntza Akademiako kidea, bai eta elkarte horretako lehendakaria zazpi alditan. San Carlosko Kirurgia eta Klinika Medikuntzako katedran jardun zuen urte luzetan, ebakuntza zail eta arriskutsu ugari eginez.

1840an, Portugal, Frantzia, Ingalaterra, Belgika, Holanda, Alemania, Prusia eta Badengo dukerriko eskoletan izan ondoren, *"Memoria sobre el plan de estudios, la organización y el personal de las escuelas médicas extranjeras con aplicación a la de San Carlos"* memoria bikaina argitaratu zuen. Bidaia hartan oso azterketa sakona egin zuen. Antza, abiatu aurretik Santiago, Lisboa, Cadiz, Sevilla, Valentzia eta Bartzelonako ikastetxeetan egon zen Espainiako irakaskuntza zertan zen ikusi eta, Pirinioak zeharkatu aurretik, bere herriaren egoera zehatz-mehatz ezagutzeko. Frantzian, berriz, Montpellier, Nimes, Toulon, Marseilla, Lyon, Bordele, Estrasburgo eta Parisen izan zen; Ingalaterran, Londresen; Belgikan, Anberes, Brusela eta Ganten; Holandan, Utrecht eta Amsterdamen; eta Alemanian, Bonn eta Heidelbergen.

1845ean gorteetako diputatu izendatu zuten, eta zeregin politikoekin batera bere lanbideari zegozkion eginkizunetan jarraitu zuen, Anatomiako katedradun eta Erresumako Osasun Kontseiluko kide zela. Anatomiako irakasle eta zuzendari zen aldetik, *"Novísimo manual de Anatomía general y descriptiva"* idatzi zuen, eta bere kirurgia-teknikarekin egindako bagina eta gernubideko ektopiari buruzko ikerlana frantsesera itzuli zuten. Minbiziak jota zegoen gaixo bati umetokia, bagina eta maskuriaren zati bat nola erauzi zizkion azaltzen zuen memoria aurkeztu eta irakurri zuen Medikuntzako Errege Akademian. Espainian egindako lehen Medikuntza Biltzarrean (1864), biriketako tuberkulosiari buruzko azterketaren berri eman zuen.

Ohorezko sari ugari eman zizkioten erakunde akademikoek: Gaztela Berriko Medikuntza eta Kirurgia Akademiak (1837), Lisboako Medikuntza Elkarteak (1839) eta Mexikoko Medikuntza Akademiak (1840). 1837tik aurrera Madrilgo Medikuntza Akademiako osoko kide izan zen, bai eta elkarte horretako lehendakaria ere. 1840an Madrilgo Natur Zientzien Akademiako kide izendatu zuten. Baina Sanchez Tocaren lorpenik handiena, bai alor akademikoan bai bere lanbidean, 1842an eskuratu zuen, errege-etxeko zirujau izendatu baitzuten. Kargu horretan Isabel II.a erreginari lagundu zion hainbat alditan, eta erreginak ganberako mediku izendatu eta "Tocako markes" titulua eman zion. Errege-ganberako zirujaua izatearen ondorioz beste zenbait sari jaso zituen: Karlos III.aren Ordenako Komendadore titulua eta Isabel Katolikoaren Gurutze Handia, adibidez. Frantziako gobernuak, azkenik, Ohorezko Legioaren Ordena Inperialeko Ofizial titulua eman zion.

1880ko uztailaren 4an hil zen. Bere azken borondateari jarraiki, Bergarara ekarri zuten eta hemengo hilerriko familiaren hilobi ederrean lurperatu zuten.

Nació en Bergara el 5 de Enero de 1804. Médico y Cirujano. Catedrático en Madrid y miembro de la Academia de la Medicina, de la que fue Presidente en más de siete ocasiones. Desempeñó largos años la Cátedra de Medicina Operatoria y Clínica de San Carlos, practicando difíciles y arriesgadas intervenciones quirúrgicas.

En 1840, tras la visita realizada a las escuelas de Portugal, Francia, Inglaterra, Bélgica, Holanda, Alemania, Prusia y el Gran Ducado de Baden, publicó una notable *«Memoria sobre el plan de estudios, la organización y el personal de las escuelas médicas extranjeras con aplicación a la de San Carlos»*. Tan concienzudo estudio debió de hacer en este viaje, que para llevar idea exacta del estado de la enseñanza en España y no pasar los Pirineos sin conocer previamente su país, empezó por visitar los establecimientos de Santiago, Lisboa, Cádiz, Sevilla, Valencia y Barcelona. En Francia recorrió, Montpellier, Nimes, Tolón, Marsella, Lyón, Burdeos, Estrasburgo y París; en Inglaterra, Londres; en Bélgica, Amberes, Bruselas y Gante; en Holanda, Utrecht y Amsterdam; en Alemania, Bonn y Heidelberg.

En 1845 es nombrado Diputado a Cortes, alternando sus actividades políticas con las profesionales como Catedrático de Anatomía y miembro del Consejo de Sanidad del Reino. Como Director y profesor anatómico compuso su *«Novísimo manual de Anatomía general y descriptiva»*; y fue traducido al francés su estudio sobre ectopía vaginal de la vejiga y la uretra con la técnica quirúrgica por él utilizada; presentó y dio lectura en la Real Academia de la Medicina una «Memoria» sobre un caso de extirpación de la matriz, la vagina y parte de la vejiga con afección cancerosa; en el primer Congreso de Medicina celebrado en España (1864) participó con un estudio sobre la tuberculosis pulmonar, etc.

Muchas fueron las distinciones honoríficas que le otorgaron a lo largo de su vida diversas instituciones académicas: la Real Academia de Medicina y Cirugía de Castilla la Nueva (1837), la Sociedad Médica de Lisboa (1839), la Academia de Medicina de México (1840). Desde 1837 figuraba como miembro de número de la Academia Médica Matritense de la que fue Presidente y en 1840 fue recibido como miembro de la Academia de Ciencias Naturales de Madrid. Pero el ascenso máximo, académico y profesional de Sánchez Toca, tiene lugar al ser nombrado en 1842 cirujano de Palacio y como tal asistió en varias ocasiones a la reina Isabel II, que le nombró médico de Cámara y le confirió el título de «Marques de Toca». Como consecuencia de su actividad de cirujano de Cámara Real le fueron otorgadas también diversas distinciones: Comendador de la Real Orden de Carlos III y Gran Cruz de Isabel la Católica; el Gobierno de Francia le otorgó el título de Oficial de la Orden Imperial de la Legión de Honor.

Falleció el 4 de julio de 1880. Por expreso deseo suyo, su cadáver, en cumplimiento de la última voluntad del ilustre finado, fue conducido a Bergara, en cuyo cementerio reposan sus restos mortales, en el hermoso panteón familiar.



*Melchor Jose Maria Sanchez Toca*





BERGARAKO UDALA

Bergarako Udalak
jai zoriontsuak opa dizkizue

El Ayuntamiento de Bergara
os desea felices fiestas